

ILARGIAN KULUNKANTARI



Fitxa teknikoa

Bost; Ilargia; Krokodiloa eta Mian. Antonio Rubio, Xabier Olaso eta Oscar Villán. Ilargian Kulunkantari Bilduma. Pamiela, 2014.

Liburuaren aurkezpena

“Ilargian kulunkantari” bilduman, argitaletxeak lau liburutxo aurkeztu eta hurrekin batera jolasean aritzeko aukera anitzak luzatzen dizkigu: poema bisualak, haur txikiek erabiltzen dituzten kontzeptuak, ezagutzen duten errealitatetik abiatu eta hizkuntza jostalari batean bilduta azaltzen dira. Nozio eta kontzeptuez gain, hizkuntzaren jokoak azpimarratuko dugu aurkezpen honetan: errimak eta onomatopeiak aurkeztu baino ez. Haur gehienek era honetako liburuetan plazer handia aurkitzen dute, haien jakin-mina kilikatu eta hizkuntzarekin jolasean aritzeko aukera eskaini; hitz- jokoak ezinbestekoa bilakatzen da hizkuntza eraikitzeko unean.

Nola kontatu

Liburutxo hauek adin tarte zabal batean erabil daiteke, hurrek urte bete dituenetik aurrera, seguruenik bost-sei ureko haur askok ere gozatuko dute haien errimak eta marrazkiekin...

Miau: Animaliak eta onomatopeiak, eta onomatopeiari indarra emanez errima txiki bat. Ilustrazioak nabarmendu eta marrazki eredu gisa proposatu...

Krokodiloa: Koloreak aurkeztu eta metatzen den ipuin txiki-txiki bat osatzen dute, errima sinple batek lotzen ditu tarte guztiak.

Bost: bost atzamar jolasean, poema bisual bat eta, berriz ere, metatzen den kontakizun txiki bat.

Ilargia: Serie bat osatzen dute, orriz orri, hiru ilargi jarraian eta aldi bakoitzean eransten zaien objektu bat.



Proposamenak luzatuz

Ibilbide luzea izan dezakete liburutxo hauek eta aukera desberdinak eskaintzen dituzte:

- Txikitan, ilustrazioak eta kontzeptuen inguruko loturretara jokatuko dugu.
- Handitzen diren heinean, errimaz gozatuko dute eta ipuinetako saltoak lotuko dituzte haien buruan.
- Errimadun kontakizuna osatuko dute testua osatu eta luzatuz...

Proposamenak zehaztuz

- Liburuak orriz orri hurrei erakutsi eta hurrek errima esan. Hau bera egin behar da, baina haur bakoitzak banan bana parte hartuz.
- Haur nagusiek txikiei liburu bakoitza erakutsi eta kontatu.
- Liburuek erabiltzen dituzten errekurtsuak: objektuen marrazkiak, serieak, metatzen diren ipuinak proposamen gisa erabili beste joko batzuk asmatzeko. Errima eta guzti.